

World Missionary Press

Goiko Laguntza - Basque (Spain)

GOIKO LAGUNTZA



"Goiko Laguntza", gaika aukeraturiko Bibliako zatien bilduma bat da. Uste dugu Liburu Santuen oharrik onena Biblia bera dela.

Jainkoaren Hitzak, "goitik dator" eta, laguntza onena da Jainkoaren gose-egarri diren bihotzentzat. Pertsona bat damutzen duenean, pekatua uzten du, eta Jesu Kristo Jauna gonbidatzen du bere bihotzan bizitzeko, eta bihotz-bihotzez sinesten du Jesu Kristo Salbatzailea dela, Jauna agertzen zaio, eta berari ematen dio bere poza eta bakea sinesten duen bihotzari. Nik esperientzia hau 1950 ko urtean sentitu nuen, eta sekula ez da eten barruko elkartasuna Jaunaren eta nire artean. Ordua da zuk oraintxe Hura hartzeko zure Salbatzaile eta Jauna bezala, oraindik hartu ez baduzu. –Argitaratzaileak

JAINKOAREN MAITASUNA — 1

Baina Kristo gu oraindik bekatari ginela hil zen gure alde: honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna. –Erromatarrei 5:8

Pazko Jaia gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaiona. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean betebetean maitatu zituen. –Joan 13:1

"Ez die inork maitasun han-diagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino". –Joan 15:13

Baita Jesu Kristoren partetik ere, testigu leial, hilen artetik lehenengo piztu eta lurreko erregeen buruzagi denaren partetik. Maite gaituenari eta bere odolaz geure bekatuetatik askatu gintuenari. –Apokalipsia 1:5

"Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan. –Joan 3:16

Urrutitik agertu natzaio eta esan diot: "Maite zaitut, betidanik maite, horregatik natzaizu etengabe leial". –Jeremias 31:3

JESU KRISTOREN JAINKOTASUNA — 2

Ezbairik gabe, handia da gure erlijioaren misterioa: Kristo, gizaki bezala agertua, Espirituak zintzotzat aitortua, aingeruek ikusia, herriei hots egina, munduan sinetsia, Jainkoak aintzan hartua. –1 Timoteori 3:16

Hau guztia, Jaunak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen: "Hara, birjinak haurdun gertatu eta semea izango du, eta Emanuel jarriko dio izena (Emanuel izenak 'Jain-koa gurekin'esan nahi du)". –Mateo 1:22, 23

Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen. Ikusi dugu haren Jainko-aintza, Aitarengandik maitasun eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. –Joan 1:1 eta 14

"Aita eta biok bat gara". –Joan 10:30

Jesusek erantzun: "Honen-beste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du. Nola diozu: 'Erakutsiezaguzu Aita?' Ez al duzu sinesten ni Aitarekin bat eginda nagoela eta Aita nirekin?"
–Joan 14:9, 10a

JESUS, JAINKOAREN SEMEA — 3

Jesus Jainkoaren Semea dela aitortzen duenarengan dago Jainkoa eta hura Jainkoarengan.
–1 Joan 4:15

Aingeruak erantzun zion: "Es-piritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote". –Lukas 1:35

Haur bat jaio zaigu, Jainkoak seme bat eman digu. Beroni ezarri zaio aginpidea, eta honela deitzen diote: "Kontseilari miragarri, Jainko indartsu, Aita betiereko, Errege bake-emaile".
–Isaias 9:5

Oraindik hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta mintzo batek hodeitik esan zuen: "Hauxe dut neure Seme maitea, hauxe dut atsegin. Entzun berari!" –Mateo 17:5

Hark erantzun: "Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan. Jesusek esan zion: "Ikusi duzu. Zurekin ari dena bera da". –Joan 9:36, 37

Jainkoaren izaera Kristo gizon eginarengan dago bete--betean. –Kolosarrei 2:9

JESUSEK DIOGU NOR DEN — 4

Jesusek erantzun zien: "Bene-benetan diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz ni".
—Joan 8:58

Emakumeak esan zion: "Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula". Jesusek esan zion: "Neu naiz, zurekin mintzo naizen hau". —Joan 4:25, 26

Jesusek erantzun zien: "Neu naiz bizia ematen duen ogia; niregana hurbiltzen dena ez da, ez, sekula gose izango, eta niregan sinesten duena ez da behin ere egarri izango". —Joan 6:35

Orduan, honela azaldu zien Jesusek: "Bene-benetan diotsu-et: Neu naiz ardientzako atea". —Joan 10:7

Jesusek esan zion, orduan: "Neu naiz piztuera eta bizia; niregan sinesten duena, hilda ere, biziko da". —Joan 11:25

"Zuek Maisu eta Jauna deitzen didazue, eta arrazoi duzue, halaxe bainaiz". —Joan 13:13

Jesusek erantzun: "Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik". —Joan 14:6

JESUSEK EGIN ZITUEN MIRARI BATZUEK — 5

Jendeari zelaian esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak eta, begiak zerura jatorik, bedeinkazioa esan, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikas-leek jendeari. Asetzeraino jan zuten denek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete zituzten. Bost mila gizon inguru izan ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte. —Mateo 14:19-21

Hitzaldia amaitu zuenean, Simoni esan zion: "Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako". Simonek erantzun zion: "Maisu, gau guztian eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; baina, zuk diozunez gero, botako dut sare". Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zutenez, sareak puskatzeko zorian zeuden. —Lukas 5:4-6

Bide-ertzean eserita zeuden bi itsu, Jesus igarotzen ari zela entzunik, oihuka hasi ziren: "Erruki zakizkigu, Jauna, Daviden Semea!... Jesusek esan zien: "Zer nahi duzue niregandik? Haiek erantzun: "Begiak zabaltzea, Jauna! Jesusek, gupidaturik, begiak ukitu zizkien, eta une berean ikusmena etorri zitzaien berriro. Eta Jesusen ondoren joan ziren". —Mateo 20:30, 32-34

JESU KRISTO EGILE ETA JAUNA DA — 6

Eta Jainkoarengan, gauza guztien egileagan, betidanik gordea zegoen asmo ezkutua nola ari den betetzen guztiei argi erakustea. —Efesoarrei 3:9

Beraren bidez sortu zituen Jainkoak zero-lurretan diren gauza guztiak, ageri direnak eta ez

direnak: munduan agintzen duten ahalmen, nagusi, aginte eta botereak. –Kolosarrei 1:16

Eta mihi orok aitoren dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako. –Filipoarrei 2:11

Jainkoak...azken egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme horrexen esku utzi ditu gauza guztiak, egin ere berorren bidez egin baitzuen mundua. –Hebertarrei 1:1a, 2

"Jakin beza ongi, beraz, Israel herri osoak Jaun eta Mesias egin duela Jainkoak, zuek gurutziltzatu zenuten Jesus hau". –Eginak 2:36

Horretarako hil eta piztu zen Kristo: hilen eta bizien Jauna izateko. –Erromatarrei 14:9

Leiala da Jainkoa, eta berak deitu zaituzte bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkaturik bizitzera. –1 Korintoarrei 1:9

JESU KRISTO DA GUZTION EPAILEA — 7

Zergatik kondenatzen duzu, bada, zeure senidea? Eta zergatik gutxiesten? Denok agertu beharko dugu Jainkoaren au-zitegian. –Erromatarrei 14:10

Jainkoaren aurrean eta, errege bezala agertuz, biziak eta hilak epaitzera etorriko den Kristo Jesusen aurrean erregutzen dizut. –2 Timoteori 4:1

"Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituela, aintzaz beterik etortzean, bere errege--aulkian eseriko da. Herriak oro haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteen-gandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituen bezala". –Mateo 25:31, 32

"Aitak ez du inor ere epai-tzen, baizik eta epaitzeko ahal-men guztia Semearen esku utzi du". –Joan 5:22

Halaxe azalduko da, Jainkoak, Jesu Kristoren bidez eta nik iragartzen dudana berrionaren arabera, gizon-emakumeen barrua epaituko duen egunean. –Erromatarrei 2:16

Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ezarri duena aitortuz. –Eginak 10:42

SALBAMENA KRISTOREN BIDEZ BAKARRIK — 8

"Neu naiz atea; ate honetan zehar sartzen dena, onik izango da, eta ez du inolako eragozpenik izango larreak aurkitzeko". –Joan 10:9

Jesusek erantzun: "Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik". –Joan 14:6

"Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuan hilko zaretela; zeren ni naizena naizela sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete". –Joan 8:24

Denek egin baitzuten bekatu eta denak aurkitzen dira geroztik Jainkoaren aintzarik gabe. Baina Jainkoak bere onginahiaz eta dohain hutsez onartu ditu, Jesu Kristoren bitartez burutu duen askapenari esker. –Erromatarrei 3:23, 24

"Honengan bakarrik dugu sal-bamena, ez baitigu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkiaren azpian, salba gaitzakeenik". –Eginak 4:12

Izan ere, Jainkoak ez gaitu bere haserre-zigorra jasateko nahi, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez salbamena iristeko baizik. –1 Tesalonikarrei 5:9

SALBAMENA KRISTOREN BIDEZ BAKARRIK — 9

Berari zor diozue izatea, Jesu Kristori esker. Berau egin du Jainkoak guretzat jakinduria, berorren bidez askatu gaitu bekatutik, salbatu eta bere egin. –1 Korintoarrei 1:30

Honek bere burua eman zuen guregatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, beraren herri izan gaitezen, beti ongi egiteko gogotsu. –Titori 2:14

Eta, bozkarioz beterik, eskerrak eman diezazkiozuen Aitari, argiaren erreinuan bere herri santuarentzat prestaturik dituen ondasunetan parte izateko gai egin zaituztenari. Berak atera gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu; honengan dugu askapena, bekatuen barkamena. –Kolosarrei 1:12-14

"Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da". –Lukas 19:10

Eta kantu berri hau abesten zuten: "Bazara nor liburua har-tu eta beronen zigiluak irekitzeko; hila izan baitzara, eta zeure heriotzaz Jainkoarentzat irabazi dituzu arraza, hizkuntza, herri eta nazio guztietako gizon-emakumeak". –Apokalipsia 5:9

KRISTOREN ODOLAZ BARKAMENA — 10

Orain, Jainkoak Kristoren odolaz onartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! –Erromatarrei 5:9

Semeak bere heriotzaz askapena eta bekatuen barkamena lortu dizkigu, Jainkoaren eskuzabaltasun agorrezinaren erakusgarri. –Efesoarrei 1:7

"Hau nire odola baita, Jainkoarekiko ituna berrituko duena, bekatuak barkatzeko guztien alde isuria". –Mateo 26:28

Gogoratu zeuen aurrekoengandik hartutako biziera zentzugabetik askatuak izan zaretela; eta

askatuak, ez gauza ustelkorrez, urrez nahiz zilarrez, baizik eta bildots garbi eta akasgabe bezala zuen alde eskaini den Kristoren odol baliotsuaz. –1 Pedro 1:18, 19

Baina argitan bagabiltza, Jainkoa ere argitan dagoen bezala, elkertasuna dugu geure artean, eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. –1 Joan 1:7

Jainkoaz harro gaude Jesu Kristo gure Jaunari esker, beronen bitartez Jainkoarekin baketzea iritsi baitugu dagoeneko. –Erromatarrei 5:11b

SALBAMENA KRISTORENGAN FEDEAREN BIDEZ — 11

Dohain hutsez zarete salbatuak sinesmenaren bidez; eta hau ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren emaitza da; ez dator egintzetatik, inor harro ez dadin. –Efesoarrei 2:8, 9

Beraz, Jainkoak sinesmenaren bidez onartu gaituelarik, bakean gaude berarekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. –Erromatarrei 5:1

Izan ere, Jesu Kristorenak garenontzat, erdaindua izateak edo ez izateak ez du ezer balio; balio duena maitasun-egintzetan agertzen den sinesmena da. –Galaziarrei 5:6

"...Sinetsi Jesus Jaunarengan, eta zu eta zure etxeokak salbatuko zarete". –Eginak 16:31b

Jainkoarengandik jaio den orok garaitu egiten baitu mun-dua. Eta munduaren gain garaipena ematen diguna gure sinesmena da. –1 Joan 5:4

Orduan, galdetu zioten: "Zer egin behar dugu Jainkoak nahi duena egiteko?" Jesusek erantzun zien: "Hauxe da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenarengan zuek sinestea". –Joan 6:28, 29

Hemen kontatuak Jesus Mesias eta Jainkoaren Semea dela sinets dezazuen idatzi dira eta, sinetsiz, betiko bizia izan dezazuen hari esker. –Joan 20:31

JAINKOAREN ONGINAHIA — 12

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Aita errukitsu eta kontsolamendu ooren iturri den Jainkoa! –2 Korintoarrei 1:3

Zein zu bezalako Jainkorik, zeurea duzun herrian bizirik geldituei gaiztakeria barkatu, haien errebeldiari ez ikusiarena egiten diozun hori bezalakorik? Zure haserreak ez du beti irauten, onginahia baituzu atsegin. –Mikeas 7:18

Jaunaren onginahia ez dela amaitu, haren errukia ez dela agortu. Goizero berritzen dira. Bai handia, Jauna, zure leialtasuna! –Negar Kantak 3:22, 23

Bai, zure maitasuna zeru zabala baino handiagoa, zure leialtasuna hodeietarainokoa. –Salmoa

Nola zerua lurraren gainean garai, hala haren maitasuna begirune diotenentzat handi. Baina Jaunaren maitasunak sekulako dirau begirune diotenentzat; haren salbamenasmoa belaunez belaun luzatzen da. –Salmoa 103:11, 17

Eta salbatu egin gaitu, ez gure jokabide zuzenagatik, bere errukiari esker baizik, jaioberritzen gaituen garbikuntzaz eta Espiritu Santuak guregan eragiten duen berrikuntzaz. –Titori 3:5

JAINKOAK GONBIDATZEN GAITU — 13

..."Zatozte, erabaki dezagun auzia: zuen bekatuak gorria baino gorriago badira ere, elurra bezain zuri geldituko dira; purpura bezain gorri izanik ere, artilearen antzeko bihurtuko dira". –Isaias 1:18

Espirituak eta emazteak diote: "Zatoz!" Entzuten duenak ere esan beza: "Zatoz!" Egarri dena betor, eta har beza doan, nahi badu, biziaren ura. –Apokalipsia 22:17

"Egarri zareten guztiok, eto-rrri uretara, etorri, dirurik ez duzuenok ere! Etorri, hartu garia eta jan, hartu ardoa eta esnea, dena hutsean, ordaindu gabe". –Isaias 55:1

Jaietako azken egunean, nagusienean, Jesusek zutitu eta oihu egin zuen, esanez: "Egarri dena betor niregana, eta edan beza". –Joan 7:37

Hori ikustean, Jesus hase-rretu egin zen, eta esan: "Utzi hurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege". –Markos 10:14

"Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena". –Mateo 11:28

EZ DIRA DENAK JAINKOAREN SEME-ALABA — 14

Honetan agertzen da zein den Jainkoaren seme-alaba eta zein deabruarena: Jainkoaren nahia egiten ez duena, hau da, bere senidea maite ez duena, ez da Jainkoaren seme-alaba. –1 Joan 3:10

Gizarte maltzur eta gaizto honen erdian garbi eta akasgabe, Jainkoaren seme-alaba errugabe, izan zaitezten; gizarte honetan izarrek munduan bezala egiten duzue argi. –Filipoarrei 2:15

Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak Jainkoaren seme-alaba dira. Zuek ez duzue hartu esklabo egingo zaituzten espiritua, berriro beldurpean bizitzera eramango zaituztena, alegia; zuek, seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez "Abba!", hau da, "Aita!", esanez hots egiten diozue Jainkoari. –Erromatarrei 8:14, 15

"Aita izango naiz zuentzat, eta zuek seme-alaba niretzat". Hau dio Jaun ahalguztidunak.

–2 Korintoarrei 6:18

Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. –Joan 1:12

EDATEAZ JAINKOAK DIOENA — 15

Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, zikinkeria, jokaera biziotsua, idolatria, sorginkeria, etsaigoak, haserreak, bekaizkeria, gorrotoak, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak, ikusezina, hordikeria, sabelkeria eta horrelakoak. Eta lehen esan nizuena diotsuet berriro ere: Horrela jokatzeko dutenek ez dute Jainkoaren erreinua ondare jasoko. –Galaziarrei 5:19-21

Gabiltzan duintasunez, egun-argiz bezala: ez jan-edanean eta hordikerian, ez lizunkeria eta neurrigabekeria, ez haserre eta norgehiagokerian. Bizi zaitezte Jesu Kristo Jaunari itsatsiak, eta ez ibili giza grinak bete nahian. –Erromatarrei 13:13, 14

Ai zuek, goizean goiz edanari ekin eta gauean berandu arte ardoz berotzen zaretenok! –Isaias 5:11

Ez begiratu ardoari, gorri-gorri kopan distiratsu dagoenean, goxo-goxo sartzan da eta. Azkenean, ordea, sugeak bezala egiten du kosk, sugedorriak bezala zizta. –Esaera Zaharrak 23:31, 32

Ardoak harrotu egiten du, pattarrak asaldatu; mozkortzen dena ez da inoiz zuhur izango. –Esaera Zaharrak 20:1

ZINTZOTASUNA EZ DA ASKI — 16

Jesusek erantzun: "Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiaz. Hori da agindurik nagusia eta lehena". –Mateo 22:37, 38

Bidean abiatzera zihoala, gizon bat etorri zitzaion lasterka eta, aurrean belaunikaturik, galdetu zion: "Maisu ona, zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?" Jesusek erantzun zion: "Zergatik esaten didazu ona? Inor ez da ona Jainkoa besterik. Badakizkizu aginduak: Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ez egin kalterik, ohoratu aitamak". Hark, orduan: "Maisu, gazte-gaztetandik bete izan dut hori guztia". Jesus maitasunez begira jarri zitzaion, eta esan: "Gauza bat falta zaizu bakarrik: zoaz, saldu daukazun guztia eta eman behartsuei, zeure aberastasuna zeruan izan dezazun; gero, zatoz eta jarraitu niri". Hitz hauek entzutean, ilun jarri zen gizona eta atsekabez joan, ondasun handien jabe baitzen. –Markos 10:17-22

Badira zuzen-itxurako jokabideak, baina azken finean heriotzarantz daramate. –Esaera Zaharrak 16:25

EZ ENGAINATU ZEUEEN BURUAK! — 17

Ez engainatu zeuen buruak. Ez dago Jainkoari barre egiterik. Bakoitzak zer erein, huraxe bilduko du. —Galaziarrei 6:7

Seme-alabatxook, ez zaitzatela inork engaina. Jainkoaren nahia egiten duena zuzena da, Kristo zuzena den bezalaxe. Bekatu egiten duena, berriz, deabruarena da. —1 Joan 3:7, 8a

Ez al dakizue bidegabeek ez dutela Jainkoaren erreinua iritsiko? Ez engaina zeuen buruak! Lizunek, sasijainkozaleek, adulteriogileek, emakeriazaleek, sodomitek, lapurrek, diruzaleek, mozkorrek, izen onaren kentzaileek eta iruzurgileek ez dute Jainkoaren erreinua iritsiko. —1 Korintoarrei 6:9, 10

Ez zaitzatela inork argudio hutsalez lilura, horrexegatik pizten baita Jainkoaren haserrea errebeldeen aurka. —Efesoarrei 5:6

Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen buruak engainatuz. —Santiago 1:22

Norbait zerbait delakoan badago, ezer ez delarik, bere burua engainatzen du. —Galaziarrei 6:3

Asko etorriko dira, nire izena berenganatuz eta esanez: "Ni naiz Mesias"; eta jendea franko engainatuko dute. —Mateo 24:5

BEKATUAK HERIOTZA DAKAR — 18

Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, gizon-emakume guztiengana zabaldu zen heriotza, guztiek egin baitzuten bekatu. —Erromatarrei 5:12

Grina txarrek, erne eta gero, bekatua sortzen dute, eta bekatuak, burutu eta gero, heriotza dakar. —Santiago 1:15

Giza grinei jarraitzeak heriotzara darama; Espirituari jarraitzeak, berriz, bizitzara eta bakera. Izan ere, giza grinei jarraitzen dietenak Jainkoaren aurkako dira; ez dute nahi eta ez dira ere gauza Jainkoaren legeari jarraitzeko. —Erromatarrei 8:6, 7

"Bekatu egiten duena, hori hilko da; semeak ez ditu aitaren erruaren ondorenak jasan beharko, ez eta aitak ere semearenak". —Ezekiel 18:20a

"Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!" —Lukas 15:32

Zuzentasunaren bidetik bizitzara, gaiztakeriaren atzetik heriotzara. —Esaera Zaharrak 11:19

Bekatuak dakarren ordaina heriotza da. —Erromatarrei 6:23a

KRISTOK HERIOTZA GARAITU ZUEN — 19

Ondoren, ozenki egin zuen deiadar: "Lazaro, zatoz kanpora!" Eta hildakoa hartzulotik irten zen. Esku-oinak oihal-zerrendaz loturik eta aurpegia zapi batez estalirik zituen. Jesusek esan zien: "Aska ezazue eta utzi joaten". –Joan 11:43, 44

"Horregatik maite nau Aitak, neure bizia ematen dudalako eta horrela eskuratzen berriro. Ez dit bizia inork kentzen, baizik eta nik neurez ematen dut. Neure esku dut ematea, eta neure esku berriro hartzea. Hori da neure Aitarengandik hartu dudana agin-dua". –Joan 10:17, 18

Aurreraturik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenak gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: "Gazte, zuri diotsut: Jaiki!" Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi. –Lukas 7:14, 15a

"Bizi dena; hilik egon nintzen, baina orain bizirik nago menderen mendetan, eta neure menpe ditut Herio eta Hilena Egoitza". –Apokalipsia 1:18

Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. –1 Korintoarrei 15:26

JAINKOAREN AGINDUAK — 20

"Jaunak esan zuen...Ez izan ni beste jainkorik.

"Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurtean nahiz lurpeko uretan dagoenetik. Ez ahuspeztu haien aurrean, ez eta gurtzarik eman ere....

"Ez erabili alferrik Jaunaren zeure Jainkoaren izena, ez baitut hori egingo duenik zigorrik gabe utziko.

"Gorde larunbata, Jaunari sagaratu, Jaunak zure Jainkoak agindu bezala. Sei egunez egingo duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko; baina zazpigarrena atsedena-eguna duzu...ez egin inolako lanik....

"Ohoratu aitamak, Jaunak zeure Jainkoak agindu bezala, luzaro bizi eta zoriontsu izan zaitezten, Jaunak zeure Jainkoak ematen dizun lurraldean.

"Ez hil inor.

"Ez egin adulteriorik.

"Ez ostu.

"Ez egin gezurrezko testigantzarik lagun hurkoaren aurka.

"Ez gutzizatu lagun hurkoaren emaztea. Ez irrikatu haren etxerik, ez sororik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik eta ez beste ezertxo ere". –Deuteronomioa 5:5b, 7-21

EZIN EZKUTATU INOR JAINKOARENGANDIK — 21

"Bai, gizakiaren jokabidea zaintzen du Jainkoak, haren urrats guztiak ikusten; ez dago ilunperik, ez itzal edo gerizperik, gaizkileen gordeleku izan daitekeenik". –Job 34:21, 22

"Norbait ezkuturik ezkutuenean gordeta ere, ez ote dut nik ikusiko? Ez al dakizue, bada, zerulurak betetzen ditudala? Hala diot nik, Jaunak". –Jeremias 23:24

Nora joan zure espiritutik urruti? Nora ihes egin zure aurretik? Zerura igota ere, zu hantxe! Hilan Egoitzara jaitsita ere, zu bertan!...Ilunpea ere ez da zuretzat ilun, gaua ere eguna bezain argi: ilunpea eta argia zuretzat berdin! –Salmoa 139:7, 8, 12

Edonon daude Jaunaren begiak gaiztoei eta onei begira. –Esaera Zaharrak 15:3

Ez da harentzat munduan ezer gorderik; dena dago agerian eta zabalik, kontuak eman beharko dizkiogun harentzat. –Hebertarrei 4:13

"Izan ere, ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ez eta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik". –Lukas 8:17

GALDUEN BETIKO HONDAMENA — 22

"Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta ha-ren erreinutik bereiziko dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide gertatzen direnak, eta sulabera botako. Negarra eta hortz-karraska izango dira han". –Mateo 13:41, 42

Bihoaz Herio Leizera gaiztoak, Jainkoaz ahazten diren nazio guztiak. –Salmoa 9:18

Oraingo zeru-lurrei dagokienez, Jainkoaren hitz berberak eusten die, eta epaieta gaiztoen hondamen-egunerako gordeak daude. –2 Pedro 3:7

Horien zigorra betiereko hondamena izango da: Jaunak bere aurretik eta bere ahalmen distiratsutik urruti botako ditu. –2 Tesalonikarrei 1:9

"Zeure eskuak nahiz oinak galbidean jartzen bazaitu, moztu eta bota; hobe duzu eskumotz edo hankamotz betiko bizitzan sartu, bi esku nahiz bi oinekin betiko sutara jaurtia izan baino". –Mateo 18:8

"Eta hauek betiko zigorretara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara". –Mateo 25:46

AUZI-EGUNA BADATOR — 23

Izan ere, badaki Jaunak gizon zintzoak probalditik atera-tzen eta gaiztoak auzi-egunean zigortzeko gordetzen. –2 Pedro 2:9

Guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, norik bere ordaina jasotzeko, saria nahiz zigorra, gorputzean bizi garelarik egindakoaren arabera. –2 Korintoarrei 5:10

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakita dagoen bezala. –Hebertarrei 9:27

Hau da maitasuna guregan bere betera iritsi den seinalea: auzi-egunerako guk konfiantza osoa dugula, Kristoren izaera berekoak baikara mundu honetan. –1 Joan 4:17

Eta hildakoak ikusi nituen, handi nahiz txiki, tronuaren aurrean zutik. Liburuak ireki zituzten; beste liburu bat ere ireki zuten, biziaren liburua; eta hildakoak liburuetan idatzirik zegoenaren arabera epaitu zituzten, bakoitza bere egintzen arabera. –Apokalipsia 20:12

Izan ere, guztiok eman beharko diogu Jainkoari norik bere buruaren kontu. –Erromatarrei 14:12

JESU KRISTOREN DOHAINA — 24

Baina bekatua eta Jainkoak egiten digun dohaina ez dira neurri berekoak. Izan ere, gizon bakarraren bekatuz guztiak hil baldin baziren, askoz ugariago zabaldu da guztiengana Jainkoaren dohaina, hau da, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, eman zaigun dohaina. –Erromatarrei 5:15

Jainkoak harroei aurre egiten baitie; apalei, berriz, onginahia azaltzen. –1 Pedro 5:5b

Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu-izateaz zuek aberats egiteko. –2 Korintoarrei 8:9

Baina bekatua ugaltu zenean, are ugariago izan zen Jainkoaren onginahia. Izan ere, bekatuak heriotzaren nagusitza ekarri zuen bezala, Jainkoaren onginahiak, gizakia onartuz, betiko biziaren nagusitza ekarri digu, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. –Erromatarrei 5:20b, 21

Apostoluek indar eta eragin handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren testigantza. Jendeak oso estimatuak zituen. –Eginak 4:33

DAMUA — 25

"Baina Jainkoak ez du kontuan hartu nahi izan gizakien iraganaldia, ezjakinean bizi izan zireneko garaia, eta bihozberritzeko agintzen die orain guztiei edonon". –Eginak 17:30

"Ez horixe! Eta zuek ere, bihozberritzen ez bazarete, berdin hilko zarete denok".
–Lukas 13:3

"Bihozberri zaitezte, gainean baituzue Jainkoaren erregetza". –Mateo 3:2

"Pedrok erantzun zien: Bihozberri zaitezte eta bataiatu guztiok, Jesus Mesiasen izenean bekatuak barka dakizkizuen, eta Espiritu Santua hartuko duzue dohain. Bihozberri zaitezte, bada, eta itzuli Jainkoarengana, bekatuak ken dakizkizuen". –Eginak 2:38; 3:19

"Kendu gainetik egindako gaiztakeria guztiak, berritu zeuen bihotz-gogoak. Zergatik hil behar duzue, israeldarrok?" –Ezekiel 18:31

Bere hutsegiteak ezkututzen dituenak ondoren txarra izango du, aitortu eta damutzen denak errukia lortuko. –Esaera Zaharrak 28:13

Izan ere, Jainkoaren asmoen arabera nahigabeak salbamenera garamatzen bizi-aldaketa dakar ondorio, eta horretaz damutu beharrik ez dago. Mundu honetatik datorkigun nahigabeak, berriz, heriotzara eramaten gaitu. –2 Korintoarrei 7:10

BEKATUEN BARKAMENA — 26

"Gaiztoari dagokionez, egin dituen bekatu guztietatik aldentzen bada, nire lege guztiak bete eta zuzenbidez eta justiziaz jokatzen badu, bizi egingo da, bai, eta ez da hilko". –Ezekiel 18:21

Utz beza gaiztoak bere bidea, gaizkileak bere asmo txarrak. Bihur dadila Jaunarengana, gupidaz hartuko baitu; bihurtu gure Jainkoarengana, guztiz barkabera baita. –Isaias 55:7

"Jakizue, beraz, senideok, Jesusi esker hots egiten zaizuela bekatuen barkamena; Moisesen legeaz ezin lortu izan duzuen Jainkoarekiko adiskidetasuna. Jainkoak bere eskuin-aldera altxatu du, buru eta salbatzaile eginez, Israeli bihozberritzea eta bekatuen barkamena emateko". –Eginak 13:38; 5:31

"Hara, atean nauzu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badu eta atea ireki, harenean sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu". –Apokalipsia 3:20

"Eta, Jerusalemen hasita, herri guztiei bihozberritzeko hots egin behar zaiela, bekatuak barka dakizkien". –Lukas 24:47

URRUNDU MUNDUKO GAUZAK — 27

Izan ere, agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztientzat salbagarri. Honek irakasten digu Jainko gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten, eta neurritz, justiziaz eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen. –Titori 2:11, 12

Jarri zeuen gogoak goiko gauzetan, ez lurrekoetan. –Kolosarrei 3:2

Eta ez hartu parte ilunpetan bizi direnen alferrikako egintzetan; sala itzazue, ordea. –Efesoarrei 5:11

Ez maitatu mundua, ez eta munduko gauzak ere. Mundua maite duenak ez du bere baitan Aitarenganako maitasunik. Izan ere, munduan dagoen guztia —grina txarrak, begietatik sartzen denaren gutzia eta aberastasunen harrokeria— ez dator Aitarengandik, mun-dutik baizik. –1 Joan 2:15, 16

Desleial halakook! Ez al dakizue munduaren adiskide izatea Jainkoaren etsai izatea dena? Munduaren adiskide izan nahian dabilena Jainkoaren etsai egiten da. –Santiago 4:4

"Garbi zaitezte, garbitu! Ken- du nire begien aurretik egintza gaiztoak! Utzi gaiztakeria". –Isaias 1:16

JAIOTZE BERRIA — 28

"Bihotz berria emango dizuet eta espiritu berria ezarriko: harrizko bihotza kenduko dizuet eta haragizkoa emango". –Ezekiel 36:26

Hark Jainkoaren nahia egiten duela baldin badakizue, jakizue halaber Jainkoaren nahia egiten duen oro harengandik jaioa dela. Badakigu Jainkoarengandik jaio denak ez duela bekatu egiten, Jainkoaren Semeak zaintzen baitu, eta Gaiztoak ezin dio inolako kalterik egin. –1 Joan 2:29; 5:18

Horietakoak zineten zuetako batzuk ere; baina garbituak izan zarete, sagaratuak eta Jain-koak onartuak Jesu Kristo Jaunaren izenean eta gure Jainkoaren Espirituaren bidez. –1 Korintoarrei 6:11

Jesusek erantzun zion: "Bene-benetan diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada". –Joan 3:3

Beraz, Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. –2 Korintoarrei 5:17

Izan ere, berriro jaio zarete, eta ez hazi hilkorretik, hilezkorretik baizik, bizia den eta betiko dirauen Jainkoaren hitzetik. –1 Pedro 1:23

BEKATUARENTZAT HILDA, KRISTOREKIN PIZTUA — 29

Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzeraino eraman zituen, gu ere, bekatuzko bizierari uko eginez, zuzentasunaren arabera bizi gaitezten. Haren zauriek sendatu zaituztete. –1 Pedro 2:24

Beraz, Kristorekin piztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo Jainkoaren eskuinaldean eserria. Jarri zeuen gogoia goiko gauzetan, ez lurrekoetan, hilik baitzaudete, eta egiazko zuen bizia Kristorekin dago Jainkoarengan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, orduan harekin aintzatsu agertuko zarete zuek ere. –Kolosarrei 3:1-4

Eta Jesu Kristorenak direnek gurutzean hilarazi dute bekatuzko beren giza izaera beronen gurari eta grinekin. Bizia Espirituak ematen badigu, jokatu ere joka dezagun Espirituaren arabera.
–Galaziarrei 5:24, 25

Ez horixe! Nola bizi gintezke oraindik bekatuan, bekatuarentzat hilik gaudenok?...Berdin zuek ere: hartu kontuan bekatuarentzat hilda zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Jesu Kristorekin bat eginik. –Erromatarrei 6:2 ta 11

BETIKO BIZIA — 30

Bere bizitzan grina txarrak ereiten dituenak, grina txarretatik heriotza bilduko du; Espiritua ereiten duenak, berriz, Espirituagandik betiko bizia bilduko du. –Galaziarrei 6:8

"Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea hagen jaso zuen bezala, halaxe izan behar du jaso Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten". –Joan 3:14, 15

Jainkoak ematen digun dohaina, berriz, betiereko bizia, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eman zaiguna. –Erromatarrei 6:23b

Honetan azaltzen da betiko bizia: zu, egiazko Jainko bakar hori, eta zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzean". –Joan 17:3

"Semearengan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semearengan sinetsi nahi ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren zigorra du bere gainean". –Joan 3:36

"Bene-benetan diotsuet: Nire mezua onartu eta bidali nauenarengan sinesten duenak betiko bizia du. Ez da kondenatua izango; igaroa da dagoeneko heriotzatik bizitzara". –Joan 5:24

BETIKO BIZIAREN KONFIANTZA — 31

Espiritu berberak barrutik aitortzen digu Jainkoaren seme-alaba garela. –Erromatarrei 8:16

Hauxe da testigantza: Jainkoak betiko bizia eman digula, eta bere Semearen bidez eman ere. Semea berekin duenak bizia du; Jainkoaren Semea ez duenak ez du bizirik. ...idatzi dizkizuet gauza hauek, betiko bizia duzuela jakin dezazuen. –1 Joan 5:11, 12, 13b

"Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite. Ni maite nauena, berriz, nire Aitak maite izango du, eta nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio berari". –Joan 14:21

Justiziak bakea ekarriko du, patxada eta konfiantza betiko. –Isaias 32:17

Hona hemen seme-alaba zaretenaren seinalea: Jainkoak bere Semearen Espiritua bidali du gure bihotzetara, eta Espirituak "Abba!", hau da, "Aita!" dio oihuka. –Galaziarrei 4:6

Jainkoa eta gu elkarrekin bat eginik gauden seinalea hau da: berak eman digun Espiritua. –1 Joan 4:13

Jainkoaren aginduak bete-tzen baditugu, ziur dakigu bera ezagutzen dugula. –1 Joan 2:3

KRISTOK BIHOTZEAN POZA EMATEN DU — 32

"Orain, ordea, zuregana noa. Hau guztia, oraindik munduan nagoela esaten dut, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan ere". –Joan 17:13

"...baina berriro agertuko natzaizue, eta poztu egingo zarete, eta poz hori inork ez dizue kenduko". –Joan 16:22

Pozik joango zarete zuek ere salbamen-iturritik ura edatera. –Isaias 12:3

"Eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan. Eta oraingo neure giza bizitza, maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen Jainkoaren Semearenganako sinesmenean oinarriturik bizi dut". –Galaziarrei 2:20

"Hau guztia nire poza zeuengan izan dezazuen esan dizuet, eta poz hori bete-betea izan dadin". –Joan 15:11

Bizirako bidea erakutsiko didazu: alaitasun bete zure aurrean, betiko zoriona zure ondoan. –Salmoa 16:11

Maite duzue Jesu Kristo, gaurdaino ikusi ez duzuen arren. Eta, ikusi gabe berarengan sinetsiz, esan ezin ahalako pozez, poz distiratsuz, beteak zaudete jadanik. –1 Pedro 1:8

OBEDITU BEHAR DIOZU JAINKOARI — 33

Badakizue, norbaiten menpean jartzen bazarete esklabo bezala berari obeditzeko, obeditzen diozuen haren esklabo egiten zaretela: bekatuari obeditzeko bada, heriotzara zoazte; Jainkoari obeditzeko bada, berriz, salbaziora. –Erromatarrei 6:16

Eta zuei, atsekabetuoi, gurekin batera atsedena ematea. Hala gertatuko da Jesus Jauna bere aingeru ahaltsuekin zerutik agertuko denean;ugarrez inguraturik agertuko da, Jainkoa aintzat hartu nahi ez eta Jesus gure Jaunaren berriona onartu nahi ez dutenak zigortzera. Horien zigorra betiereko hondamena izango da: Jaunak bere aurretik eta bere ahalmen distiratsutik urruti botako ditu. –2 Tesalonikarrei 1:7-9

Ez baitira Jainkoaren aurrean zuzen legea entzun bakarrik egiten dutenak, bete ere egiten dutenak baizik. —Erromatarrei 2:13

"Hara, aukeran jartzen dizkizuet gaur bedeinkazioa eta madarikazioa; bedeinkazioa, baldin eta Jaunaren zeuen Jainkoaren aginduak onartzen badituzue, gaur nik esan bezala; madarikazioa, baldin eta Jaunaren zeuen Jainkoaren aginduak onartzen ez badituzue".

—Deuteronomioa 11:26-28a

JESU KRISTO AITORTU BEHAR DA — 34

Eta mihi orok aitor dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

—Filipoarrei 2:11

"Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut nik ere Aita zerukoaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut nik ere zeruko Aitaren aurrean". —Mateo 10:32, 33

Honela jakingo duzue norbaitek Jainkoaren Espiritua duen ala ez: Jesu Kristo egiazko gizon egin dela aitortzen duenak Jainkoaren Espiritua du.

—1 Joan 4:2

Jesu Jainkoaren Semea dela aitortzen duenarengan dago Jainkoa eta hura Jainkoarengan.

—1 Joan 4:15

Izan ere, zeure ahoz Jesus dela Jauna aitortzen baduzu, eta zeure bihotzean Jainkoak hilen artetik piztu zuela sinesten baduzu, salbatu egingo zara. Zeren, bihotzez sinesten duena onartu egiten baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. —Erromatarrei 10:9, 10

Semea ukatzen duenak Aita ere ukatu egiten du. Semea aitortzen duenak Aita ere berekin du. —1 Joan 2:23

SATANAS GURE ETSAI MALTZURRA — 35

Bukatzeko, sendo zaitzatela Jaunak bere indar ahaltzuaz. Har itzazue Jainkoak ematen dizkizuen armak, deabruaren maltzurkeriei aurre egiteko gai izan zaitezten. —Efesoarrei 6:10, 11

Orduan, Espirituak basamortura eramane zuen Jesus, deabruak tenta zezan. ...Jesusek, orduan: "Alde hemendik, Satanask! Idatzia baitago: Adoratu Jauna, zeure Jainkoa, eta bera bakarrik gurtu." Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak etorri zitzaizkion zerbitzatzera. —Mateo 4:1 ta 10, 11

Izan zaitezte neurritsu eta egon erne. Zuen etsaia, dea-brua, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsiko. Egiozue aurre fedean sendo. —1 Pedro 5:8, 9a

Gure borrokako armak ez dira gizakiarenak, Jainkoarenak baizik, eta hiri gotorrak ere errausteko indarra dute: argudio faltsuak. –2 Korintoarrei 10:4

Ezagunak ditugu Satanasen azpikeriak, eta ez dugu nahi arazo honetan hura irabazian ateratzerik. –2 Korintoarrei 2:11

GARAITZA SATANASEN GAINEAN — 36

Familia bateko seme-alabak haragi eta odol bereko diren bezala, horrelaxe hartu zuen parte Jesusek ere gizakiaren haragi-odoletan, heriotzaren nagusi den deabrua heriotzaren bitartez indargabetzeko. –Hebertarrei 2:14

"Begiak ireki diezazkiezun eta ilunpetatik argitara eta Satanasen menpetik Jainkoarengana bihur daitezen; horrela, niregan sinetsiz, bekatuen barkamena izan eta sagaratuei dagokien ondarea eskura dezaten". –Eginak 26:18

Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak?...Baina guztiotan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituenari esker. –Erromatarrei 8:35 ta 37

Jar zaitezte, bada, Jainkoaren menpean; egiozue aurre deabruari, eta ihes egingo du zuengandik. Hurbil zaitezte Jainkoarengana, eta hurbildu egingo zaizue. –Santiago 4:7, 8a

Oraintxe da mundu honen epaiketa; oraintxe galduko du bere boterea mundu honetako buruzagiak. –Joan 12:31

MAITASUNA, IKASLE BATEN PROBA — 37

Espirituaren fruitua, berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz ona, onginahia, leialtasuna, otzantasuna, bere buruaren jabe izatea. –Galaziarrei 5:22, 23a

Bigarrenez galdetu zion Jesusek: "Simon, Joanen semea, maite al nauzu?" Pedrok, berriro: "Bai, Jauna, badakizu mai- te zaitudana." Jesusek, orduan: "Zaindu nire ardiak". –Joan 21:16

"Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak". –Joan 14:15

"Jainkoa maite dut" esan eta senideari gorroto diona gezurri da; izan ere, ikusten duen senidea maite ez duenak ezin du maite ikusten ez duen Jainkoa. –1 Joan 4:20

"Honetan ezagutuko dute guztiek zuek nire ikasle zaretela: elkar maite izatean". –Joan 13:35

Guk badakigu heriotzatik bizira iragan garena, eta hau jakin, senideak maite ditugulako dakigu.

Maite ez duena heriotzaren menpe dago. –1 Joan 3:14

Izan ere, Jainkoa maitatzea haren aginduak betetzea da. Haren aginduak ez dira astunak. –1 Joan 5:3

JESU KRISTOREN PIZTUERA — 38

Asteko lehen egunaren goizean pizturik, Jesus lehenik Magdalako Mariari agertu zitzaion, zeinengandik zazpi deabru bota baitzituen. –Markos 16:9

Gure bekatuengatik eman zuten Jesus heriotzara, eta gure salbamenerako izan zen piztua. –Erromatarrei 4:25

"Eta gu gara hark juduen lurralde osoan eta Jerusalemen egindako guztien lekuko. Jesus hau egur batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion, ez herriko guztiei, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik, guri alegia, hura hilen artetik piztu ondoren berarekin jan eta edan dugunoi". –Eginak 10:39-41

Zortzi egunen buruan, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere bertan zen. Ateak itxirik zeuden arren, sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agertu zituen esanez: "Bakea zuei". Gero, esan zion Tomasi: Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihets-zuloan. Eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik. Tomasek erantzun zion: "Ene Jauna eta ene Jainkoa!" –Joan 20:26-28

BIZTUERA, GURE AINTZAZKO ITXAROPENA — 39

"Ez harritu esaten dizuedanaz, bai baitator ordua hildako guztiek haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: on egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaitz egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko". –Joan 5:28, 29

Ez al dakizue, bada, bataioaz Jesu Kristori lotuak izan garenok haren heriotzari izan garela lotuak? Bataioaren bidez berarekin lurperatuak izan garenok haren heriotzari lotuak gaude, Aitaren ahalmenaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. Berarena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, hari itsatsiak izango gara harena bezalako piztueran ere. –Erromatarrei 6:3-5

Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hil egingo den arren, Espirituak badu bizia, Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi araziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere, zuengan bizi den bere Espirituaren bitartez. –Erromatarrei 8:10, 11

SAGARAPENA JAINKOARENTZAT — 40

Ene maiteok, honelako agintzariak ditugunez gero, garbi gaitezen gorputzeko eta espirituko zikin guztietatik, eta eraman dezagun bere betera geure sagarapena, Jainkoarenganako begirunean biziz. –2 Korintoarrei 7:1

Azkenik, senideok, otoi eta otoi hau eskatzen dizuet Jesus Jaunaren izenean: Jainkoari atsegin emateko nola bizi guregandik ikasi zenutenez gero, saia zaitezte gero eta gehiago horrela bizitzen. Badakizue nolako irakaspenak eman genizkizuen Jaunaren izenean. Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizi zaitetzela berarentzat, sagaratuei dagokienez, eta alde egin dezazuela lizunkeriatik. Joka dezala bakoitzak zentzu santuz eta errespetuz bere emaztearekin. Jainkoak ez gaitu moralgabekeria bizitzeko deitu, berarentzat sagaraturik bizitzeko baizik. –1 Tesalonikarrei 4:1-4, 7

Aitzitik, dei egin dizuen Jainkoa santu den bezala, izan zuek ere santu zeuen biziera guztian. Izan ere, Liburu Santuak dio: "Izan santu, ni santua naiz eta". –1 Pedro 1:15, 16

SAGARAPENA JAINKOARENTZAT — 41

Kristorengan aukeratu gintuen mundua mundu izan baino lehen, haren aurrean santu eta akasgabe izan gaitezen maitasunez. Eta giza izaera berria, Jainkoaren irudira sortua, jantzi behar duzuela, Jesusen egiaren arabera biziera zuzena eta santua eramateko. –Efesoarrei 1:4; 4:24

Eta galtzada bat izango da han; "Bide Santu" deituko zaio. Kutsaturiko inor ez da handik igaroko, ez eta zentzugabeak ere handik ibiliko. –Isaias 35:8

Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak bekatuak barkatu eta gaiztakeria orotatik garbituko gaitu. –1 Joan 1:9

Dena honela desegitekoa baldin bada, pentsa ezazue zein santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak. –2 Pedro 3:11

Saia zaitezte guztiekin bakean bizitzen, eta izan santu; bestela, ez baitu inork Jauna ikusiko. –Hebertarrei 12:14

Goretsi Jaunaren izen ospe-tsua! Ahuspeztu Jaunaren aurrean, bere santutasunez agertzean! –Salmoa 29:2

GIZON-EMAKUMEAK ESPIRITUZ BETERIK — 42

"Beraz, zuek, gaiztoak izanik, seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez areago ez die zeruko zuen Aitak Espiritu Santua emango eskatzen diotenei?" –Lukas 11:13

Otoitza bukatzearekin batera, bilduak zeudeneko tokia dardaratu egin zen; denak Espiritu

Santuaz beterik gelditu ziren, eta Jainkoaren hitza ausardiaz predikatzen zuten. –Eginak 4:31

"Neure Espiritua ezarriko dut zuengan, nire legeen arabera jokatzeko eta nire aginduak arretaz betetzeko gai bihurtuz". –Ezekiel 36:27

Zuek, ordea, ez zarete bizi grina horien menpean, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. –Erromatarrei 8:9

"Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren bazterreraino". –Eginak 1:8

Bernabe gizon ona baitzen, eta Espiritu Santuaz eta fedez betea, jende asko elkartu zitzaion Jaunari. –Eginak 11:24

PROMES HARRIGARRIAK KRISTAUEI — 43

Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik eta salbatzen ditu etsita daudenak. –Salmoa 34:19

Neuk eginak dira gauza guztiok, neureak ditut denak. Hala diot nik, Jaunak. Hona norengan ditudan begiak jartzen: atsekabetu eta bihotz-eroriengan, nire hitzari begirune diotenengan. –Isaias 66:2

"Haien begietako malkoak xukatuko ditu, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua betiko desagertua baita". –Apokalipsia 21:4

Ene senide maiteok, ez harritu zuek probatzeko hor piztu den suarengatik, zerbait harrigarria izango balitz bezala. Aitzitik, poztu Kristoren sufrimenduetan parte izateko zoria duzuelako, hura aintzaz beterik etortzean poz-alaitasunez bete zaitezten. –1 Pedro 4:12, 13

Izan konfiantza Jaunarengan eta egin on dena, zeure herrialdean bizi eta bertako aberastasunaz gozatzeko. –Salmoa 37:3

"Ardura zaitezte, batez ere, Jainkoaren erregetzaz eta haren nahia betetzeaz, eta beste hori guztia gehigarritzat emango dizue Jainkoak". –Mateo 6:33

PROMESAK TENTATUEI — 44

Bere ere nekeetan probatua izan delako, gauza da orain probaldian daudenei laguntzeko. –Hebertarrei 2:18

Ibaiak pasatzean, zurekin izango naiz: urek ez zaituzte hondoratuko; sutatik igarotzean, ez zara erreko, ez zaitu sugarrak kiskaliko. –Isaias 43:2

Zoritxar asko izaten du zintzoak, baina guztietatik libratzen Jaunak. –Salmoa 34:20

Ez zaizue gainera etorri giza indarrez gainditu ezin ahalako tentaldirik; leiala da Jainkoa, eta ez du utziko zeuen indarraz gaindiko tentaldirik izan dezazuen. Aitzitik, tentaldiarekin batera indarra ere emango dizue, tentaldia garaitu ahal izateko. –1 Korintoarrei 10:13

Badakigu Jainkoak bera maite dutenen onerako bideratzen dituela gauza guztiak, bere aurre-erabakiz deitu dituenen onerako, alegia. –Erromatarrei 8:28

Izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz gupidatu ez daitekeen norbait, zeren eta bera ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. –Hebertarrei 4:15

PROMESAK GARAILEEI — 45

"Hori izango du garaileak ondare, eta Jainko izango nau ni eta nik bera seme".
–Apokalipsia 21:7

"Garailea neure Jainkoaren tenpluko zutabe egingo dut, eta ez da gehiago handik irtengo; neure Jainkoaren izena eta neure izen berria idatziko ditut harenan; bai eta neure Jainkoaren hiriaren izena ere, zerutik, nire Jainkoarengandik, jaisten den Jerusalem berriaren izena".
–Apokalipsia 3:12

"Garailea zuriz jantziko dute, eta ez dut kenduko haren izena biziaren liburutik; eta haren alde aterako naiz neure Aitaren eta honen aingeruen aurrean". –Apokalipsia 3:5

"Garailea neurekin eseraraziko dut neure tronuan, neu ere garaile izan eta neure Aitarekin beronen tronuan eseri naizen bezala". –Apokalipsia 3:21

"Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena. Garaileari, Jainkoaren paradisuan dagoen bizi-arbolako fruituetatik emango diot jaten". –Apokalipsia 2:7

"Garaileari, nire nahia egiten azkeneraino irauten duenari, agintea emango diot nazioen gain".
–Apokalipsia 2:26

JAINKOAK DIOGU DIBORTZIOARI BURUZ — 46

Ezkonduei agintzen diet —ez nik, Jaunak baizik— emaztea ez dadila banandu senarrarengandik; eta bananduko balitz, ez dadila berriro ezkon, edo bakeak egin ditzala senarrarekin. Eta senarrak ez dezala zapuztu emaztea...Emakumea loturik dago senarra bizi den bitartean. Hiltzen bazaio, libre gelditzen da eta nahi duenarekin ezkon daiteke, aukeratua kristaua izanez gero. –1 Korintoarrei 7:10, 11 ta 39

Adibidez, emaztea senarra bizi den bitartean bakarrik dago legez senarrari lotua. Senarra hiltzen

denean, ordea, ezkontza-legetik askatua gelditzen da. Horregatik, senarra bizi den bitartean beste gizon batekin elkartzeko den emaztea adulterio gile bihurtzen da. Senarra hilez gero, berriz, ezkontza-legetik askatua gelditzen da eta ez da adulterio gile, beste gizon batekin elkartu arren. –Erromatarrei 7:2, 3

"Nik, berriz, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak —legearen kontra elkartuak ez badira behintzat— adulterioa bultzatzen du emaztea; eta utzi- tako emakume horrekin ezkontzen denak adulterio egiten du". –Mateo 5:32

JESU KRISTO LURRERA ITZULIKO DA — 47

"Joan eta tokia prestatu ondoren, berriz etorri eta neurekin eramango zaituztet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaituzten". –Joan 14:3

"Beraz, norbait, gizaldi desleial eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere Aitaren aintzaz betarik aingeru santuekin etorriko denean". –Markos 8:38

Ene maiteok, dagoeneko Jainkoaren seme-alaba gara, baina oraindik ez da agertu izango garena. Badakigu, izango garen hori agertuko denean, Jainkoaren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko baitugu hura. Harengan esperantza hau duen orok garbitu egiten du bere burua, Jesus garbia den bezala. –1 Joan 3:2, 3

"Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea". –Lukas 12:40

"Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz betarik etorriko da aingeruekin; eta, orduan, bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio". –Mateo 16:27

JAINKOAREN HITZA — 48

"Zeru-lurra igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko". –Lukas 21:33

Izan ere, antzinako profetek ez zuten beren kabuz hitz egin, baizik eta, Espiritu Santuak gidaturiko gizonak zirenez, Jainkoaren partetik hitz egin zuten. –2 Pedro 1:21

Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da eta irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria. –2 Timoteori 3:16

Nire pausoentzat kriseilu da zure hitza, nire biderako argi. –Salmoa 119:105

OTOITZ ETA BARKATU

Zuek, egizue otoitz honela: "Gure Aita zerukoa, agertu santu zeure izena, etorrazazi zeure

erregetza; betearazi lurrean zeu- re nahia, zeruan betetzen den bezala. Emaguzu gaur egun honetako ogia, eta barkatu gure erruen zorra, guk ere geure zordunei barkatu diegunez gero; ez utzi gu tentaldian erortzen, eta gorde gaitzazu gaiztoarengandik. Izan ere, besteei beren huts egiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeuen hutsegiteak zeruko Aitak". –Mateo 6:9-15

JAINKOAREN SALBAZIO-BIDEA

Salbatzaile bat behar dut.

Denek egin baitzuten bekatu eta denak aurkitzen dira geroztik Jainkoaren aintzarik gabe.
–Erromatarrei 3:23

Kristo hil zen nire alde.

Kristo bera ere giza bekatuengatik hil zen, eta behin betiko hil ere, errugabea errudunengatik, zuek Jainkoarengana eramateko. –1 Pedro 3:18a

Nire bekatuz damutu behar dut.

Bere hutsegiteak ezkutatzen dituenak ondoren txarra izango du, aitortu eta damutzen denak errukia lortuko. –Esaera Zaharrak 28:13

Sinesmenaren bidez Jesus onartu behar dut.

Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. –Joan 1:12

Nire salbamenaz segur izan dezaket.

Semea berekin duenak bizia du. –1 Joan 5:12a

"Bene-benetan diotsuet: Nire mezua onartu eta bidali nauenarengan sinesten duenak betiko bizia du. Ez da kondenatua izango; igaroa da dagoeneko heriotzatik bizitzara". –Joan 5:24

Bibliako textua erabilita "Elizen Arteko Biblia" izan da, Bibli Elkarte Batuak, © 1998, K/Santa Engracia, 133, 28003 Madrid, Espaina. Baimena lortuta. Used by permission.

Interesa ba al daukazu beste ikasketak hartzeko Jainkoaren Hitzari buruz, idatzi ezazu helbide honetara:

World Missionary Press, Inc.
P.O. Box 120
New Paris, Indiana 46553-0120 USA

Or order [online](#).

[World Missionary Press Home Page](#) | [Go to the Top of This Page](#)